

Laguntza pertsonalerako prestazio ekonomikoa -LPPE-

Fitxa interneten bistaratu

INFORMAZIO OROKORRA

Helburua

Laguntza ekonomiko honen bitartez, mendekotasuna duten pertsonen autonomia sustatzeko laguntzaile pertsonalen kontratazioak ekarritako gastuak ordaintzen lagundu nahi da. Hezkuntzarako eta lanerako sarbidea erraztea eta pertsona komunitatean erabat integratzea eta parte hartzea dira bere helburuak eta, era berean, eguneroko oinarritzko jardueretan bizimodu autonomoagoa izatea.

Nork tramitatzen du

- ZAINKETETAKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO DEPARTAMENTUA
- Plangintzako, Inbertsioetako, Ikuskapeneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zuzendaritza Nagu.
- Plangintzako, Ituneko eta Prestazio Ekonomikoetako Zerbitzua

Nori zuzenduta

Mendekotasun egoeran dauden pertsonak: I, II eta III graduak edo mendekotasuna baloratzeko baremoan (MBB) 25 puntutik 100 puntura.

Baldintzak

- Mendeko pertsona bezala baloratuta egotea, edozein delarik gradua.
- Espainiako nazionalitatea izatea edo legezko egoitza Espainian izatea (adingabeak izan ezik).
- Gutxienez 5 urtez, Espainian edo Europar Batasunean legez bizi izana; horietatik bi eskaera aurkeztu aurreko bi urteak izan beharko dute (adintxikikoak eta itzulitako emigrante espainiarrak salbu).
- Gipuzkoan errolatuta egotea eta bitiztea.
- 3 urte edo gehiago izatea.
- Kontratu bat dagoela egiaztatzea, mendekotasuna duen pertsonari laguntza zerbitzu hori eskaintzeko.
- Kontratutako pertsonak adinez nagusia izan beharko du, eta "Mendeko pertsonen arreta soziosanitarioa emateko" kualifikazio profesionala edo salbuespenezko gaikuntza izan beharko du.
- Ezingo dute laguntzaile pertsonal izan ezkontideak edo izatezko bikote lagunak, eta 3. gradura arteko senitartekoez (ez eta tutoreak eta hartzaileak ere).
- Etxebizitzan baldintza egokiak eman behar dira bizikidetzarako eta bizigarritasunarentzako.

Zenbatekoa

Urteko 12 ordainketa egingo dira. Mendekotasunaren arabera gehienezko eta gutxienezko zenbatekoak:

III Gradu edo 75 puntutik 100 puntura MBBan: 876€ - 200€

II Gradu edo 50 puntutik 74 puntura MBBan: 534€ - 150€

I Gradu edo 25 puntutik 49 puntura MBBan: 316€ - 100€

Zenbatekoa zerbitzuaren kostuaren arabera zehaztuko da eta, gehienez eta gutxienez, aipatu diren kantitateak ordainduko dira.

Gehienezko kopuruaren gainean aplikatu daitezken murrizketak ikusteko kontsultatu informazio gehigarria.

II eta III graduetan, hileroko gastua Lanbidearteko Gutxieneko Soldataren (LGS) %125a baino gehiago bada, 240€ko zenbateko osagarria jasotzeko eskubidea dago.

Ordaintzeko modua

Mendekotasuna duen pertsonak eskaeran adierazten duen kontuan hila burututa. Eskatzailea aipatutako kontuko titular izan beharko du, adintxikikoen kasuan salbu, kasu hauetan gurasoen edo tutorearen titulatasuneko kontua onartuko delarik.

HASIERA ETA ESKAERA

Aurkeztu beharreko formularioak eta ereduak

Eskaera beteko dute mendekotasun egoeran dagoen pertsona bizi den udalerriko Gizarte Zerbitzuek.

[Eskaera orria](#)

Aurkeztu beharreko agiriak

- **Eskaera normalizatua**, eskatzaileak edo erregistro bateratuan haren ordezkari gisa izena emanda dagoenak sinatua.
- Prestazioa kobratzeko erabiliko duen **kontuaren bankuko frogagiria edo libretaren fotokopia** (kontuak eskatzailearen izenean egon behar du; adingabeen kasuan soilik, gurasoak izan daitezke titularrak).
- **Errolda agiriak**. Espainian edo EBN gutxienez bost urtez errolatuta egon izana egiaztatu behar da, eta horietatik bi behintzat eskaera aurkeztu aurreko bi urteak izango dira (adintxikikoak ezik). **Ez da beharrezkoa Gipuzkoan errolatuta egondako epealdietako errolda agiriak aurkeztea.**
- **Ezkonduek edo izatezko bikoteak**: familia liburuaren fotokopia edo Izatezko Bikoteen Erregistroko ziurtagiria.
- **Bananduak edo dibortziatuak**: banantze epaiaren fotokopia eta, halakorik balego, hitzarmen arauemailearena.
- **Atzerritarrak**: Estatuan edo EBN emandako legezko aldien ziurtagiria, atzerritarren bulegoak emana. Legez emandako bost urte egiaztatu behar dira.

- **Azken ekitaldiko errenta aitortpena Gipuzkoatik kanpo egin bada:** azken errenta aitortpenaren fotokopia, bizikidetzatza unitateko kide guztiena.
- Laguntzaile pertsonalarekin edo laguntza pertsonalaren zerbitzua eskaintzen duen entitatearekin **sinatutako kontratua**.
- Onuradunak laguntzaile pertsonala zuzenean kontratatzen duen kasuetan, gainera, agiri hauek:
- **Langilearen Gizarte Segurantzako alta eskaria**, alta data eta hileko soldata bertan agertu behar direlarik.
- Laguntzaile pertsonalaren **NANaren edo AIZren fotokopia**.
- **Laguntzaile pertsonalaren baimena** beste hainbat departamentutako edo beste administrazio publiko batzuetako fitxategietan kontsulta egiteko emandako datuak egiaztatzeko.
 - Laguntzaile pertsonalari eskatzen zaion **kualifikazioa egiaztatzeko tituluaren edo ziurtagiri profesionalaren kopia**, edo Eusko Jaurlaritzak aitortutako salbuespenezko gaikuntzarena.

Eskaera moduak

- » Presentziala

Zuzeneko arretarako bulegoak

Eskaera aurkeztuko da mendekotasun egoeran dagoen pertsona bizi den [udalerriko Gizarte Zerbitzuetan](#).

EBAZPENEA

Ebazteko gehienezko epea

3 hilabete.

Administrazioaren isiltasuna

Ezestekoa

Honen bidez jakinarazten da

- » Ohiko postaz

ARAUDIA

[6/2023 Foru Dekretua](#), apirilaren 18koa, abenduaren 14ko 39/2006 Legeak, mendekotasun egoeran dauden pertsonen Autonomia Pertsonala eta Zainketa Sustatzekoak, ezarritako prestazio ekonomikoak arautzen dituenak.

[6/2023 Foru Dekretua \(akats zuzenketa\)](#); GAO 2023/5/26

[6/2023 Foru Dekretua \(54/2023 Foru Dekretuak sartutako aldaketak\)](#); GAO 2023/11/24

[Gehieneko zenbatekoak](#) onartzen dituen Diputatuen Kontseiluko akordioa; GAO 2023/2/27

[Gutxieneko zenbatekoak](#) onartzen dituen Diputatuen Kontseiluko akordioa; GAO 2023/12/18

[Kostu handietarako osagarria](#) onartzen duen Diputatuen Kontseiluko akordioa; GAO 2023/5/29

[39/2006 Legea, abenduaren 14koa](#), mendekotasun egoeran dauden pertsonen autonomia pertsonala eta laguntza sustatzekoak.

INFORMAZIO OSAGARRIA

Oharrak

- Prestazioaren onuradunek laguntza pertsonalean izandako gastua justifikatu behar dute. Urtearen lehen hiruhilekoan Foru Aldundiak onuradunaren telefono mugikorrera SMS bat bidaliko du, lotura batekin, honek aurreko urteko gastua "on line" justifikatu dezan. Justifikazioa paperean ere egin daiteke. Laguntza pertsonala enpresa batek eman duenean, Foru Aldundiak gastuaren justifikazioa enpresa horri zuzenean eska diezaioke.
- Prestazioaren eskubideari edo zenbatekoari eragin diezaiokeen edozein aldaketa 30 eguneko gehienezko epean jakinarazi behar da. Baita laguntzaile pertsonalaren edozein aldaketa ere.
- Prestazioaren egokitasuna aztertzeko gizarte zerbitzuetako langileek onuradunaren etxera egin ditzaketan bititak errazteko betebeharra dute onuradunek.
- Oker jasotako diru zenbatekoak itzuli beharko dira.

Informazio gehigarria

Bateraezintasunak beste zerbitzu edo prestazioekin

- Bateragarria: Eguneko Zentroko zerbitzuarekin (prestazioan %40ko murrizketa bat aplikatuz), Taller Okupazionalarekin eta Etxez Etxeko Laguntza zerbitzuarekin.
- Denboraldi batean bateragarria (urte naturalean bi hilabetez gehienez): Aldibaterako Egonaldiarekin, Zentro Soziosanitarioekin edo Ospitale Psikiatrikoekin.
- Bateraezina: Egoitza Arreta Iraunkorarekin (publikoa nahiz pribatua) eta Familia Inguruneke Zaintzarako Prestazio Ekonomikoarekin (FIZPE).

Gehieneko prestazioaren gaineke murrizketak

-Lehenenik, onuradunaren edo bere elkarbizitza unitateko beste kideen errenta aitopenetan (PFEZ) aitortutako edo egiaztatuko etekinen arabera prestazioaren gehieneko zenbatekoa %10, %20 edo % 30 gutxitu daiteke, edo murrizketarik ez egin.

-Bigarren, gizarte babeseko sistema publikoan ezarrita dagoen izaera eta xede berdintsuko beste prestazioaren bat jasotzen bada, haren zenbatekoa ere kendu egingo da, bereziki hauek:

1.- Erabateko ezintasun iraunkorreko pentsioaren baliaezintasun handiaren osagarria.

2.- Norberaren kargura 18 urtetik gora eta %75 edo gehiagoko desgaitasuna duen seme-alabengatik ematen den diru kopurua.

3.- Beste norbaiten beharragatik ematen den baliaezintasuneko kotizatu gabeko pentsioaren osagarria.

4.- Beste norbaiten laguntza beharragatik emandako subsidioa minusbaliatuak gizarteratzeari buruzko legekoa.

-Hirugarren, prestazioa %40 batean murriztuko da Eguneko Zentro batera joaten bada.

-Azkenik, prestazioaren zenbatekoak ezingo du inoiz gainditu zerbitzuagatik ordaindutako kostua eta, beraz, kasua balitz kopuru horretaraino murriztu beharko litzateke ordaindu beharrekoa.

Murrizketa eta kenketa hauen ondoren prestazioaren zenbatekoak legez onartutako gutxienekoa errespetatu beharko du.

Laguntza pertsonala eskaintzen duten enpresen zerrenda : Gipuzkoako Gizarte Zerbitzuen Foru Erregistroko "3.1.1 Laguntza Pertsonalerako Prestazio Ekonomikoa" zerbitzuan altan emandako enpresak.

Enpresa hauez gain badira beste batzuk zerbitzua zuzenean beraiek eman gabe bitartekari lanak egiten dituztenak, mendeko pertsonak zuzenean laguntzaile pertsonal bat kontratatzeke beharrezko zerbitzuak eskainiz (tramiteak, kontratuak, nominak..).